

# XORI TTIKI

Xori ttiki, zato gurekin!  
Erakuts zenbat luma duzun!

...  
Xori ttiki, zato gurekin!  
Erakuts zenbat luma duzun!



## HELBURUAK

AKTIBITATEAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN JAKINTASUNAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK
IRUDITU, SENDITU, SORTU. Kantua gogoz ikasi. Zuzen kantatu. Xorien kantuak imitatu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Musika talde-ihardueretan parte hartu.</li> <li>◆ Botzarekin jostatu eta haren ahalak ikertu.</li> <li>◆ Bere burua espazioan eta denboran kokatu joko kantatu eta dantzatuen bidez.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Autonomia erakutsi espazioan, gauzei eta jendeei buruz ; bere gorputza ezagutu ; jokamoldea iharduerari egokitu ; gorputz trebetasuna erakutsi.</li> <li>◆ Jokamoldea talde egoerari egokitu ; parte hartu ; besteekin harremanetan jarri ; besteari behatu, bestea onartu eta errespetatu.</li> </ul>
MUNDUAN IHARDUN. Gogoan bildu (konzentratu). Koordinatu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Besteekin parte hartu gorputz adierazpen ihardueretan eta jokoetan, arau soil batzuen arabera, horien balioa onarturik.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Elgarrekilako bizitzaren arauak ulertu eta onartu, gogokoak ez direnak barne.</li> </ul>
MUNDUARI OHARTU. Luma bezainbat txalo egin.	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Zenbaki prozedura bat (edo beste prozedura bat) obratu.</li> <li>◆ Zenbaki ezagutuen segida luzatu eta zenbatzeko baliatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Estetikaren sendikortasuna ukan eta bere gustuak adierazi, beste obretan ere.</li> </ul>
MINTZATZEN IKASI, IDAZMENARI OHARTU.  + ikus hizkuntza helburuak hurrengo orrialdean.	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Hitza hartu eta molde ulargarrian bere burua adierazi.</li> <li>◆ Testu laburrak (olerkiak,...) erran eta gogoan atxiki.</li> <li>◆ Gauza, egintza eta sendimenduak izendatu eguneroko egoeretan.</li> <li>◆ Hiztegi zehatza gogoan atxiki eta doakion kontestuan erabili.</li> <li>◆ Gramatika arau batzuei ohartu (pluralaren marka,...).</li> <li>◆ Aditzen denboraldiak, izenordeak eta lokailuak aldatuz erabili.</li> <li>◆ Ikasi hiztegia beste egoera batzuetan baliatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Oroimena erabili egoera ezagunetan oinarrituz.</li> <li>◆ Ixtorioen, kantuen, olerkien... eta beste segiden gogoan atxikitzen trebatu.</li> <li>◆ Berdintasunak eta ezberdintasunak bereizi (itxurak/formak, koloreak, izariak, soinuak,...).</li> <li>◆ Agindu/manu bat ulertu eta bete.</li> </ul>
ELGARREKIN BIZI.	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Elgarrekin bizitzeko arauak onartu.</li> </ul>	

## USTIAPENA (egin moldea)

Kantuaren lantzeko hiru proposamen :

### 1. Lehen ustiapen moldea :

***Haurrak errondan dira. Haur bat erdian dago, jarririk. Luma zenbait baditu/badauzka bere ondoan.***

- Errepika denboran, errondan diren haurrak kantuz ibiltzen dira.
- Errepika bukatzen denean, erdian den haurrak lumak hartzen ditu ; altxatzen ditu eta erraiten du zenbat dituen/dauzkan.
- Errondan direnek, lumen kopuruaren arabera txaloak egiten dituzte (zenbat luma, hainbat txalo).

Oharra : behin egin eta, erdikoak beste haur bat hautatzen du, bere tokian segituko duena.

Haurrak erdian ariko dira aldizka, jokoa bukatu arte.

## 2. Bigarren ustiapen moldea :

*Haurrak jarririk dira errondan. Eskuak bizkar gibelean gorderik kantatzen dute.*

Errepika bukatzean, izendatu haur batek nahi duen bezainbeste erhi erakusten du. Erhi kopuruaren arabera, besteek txaloak egiten dituzte.

## 3. Hirugarren ustiapen moldea :

Horretarako, erabil daitezke eranskinean dauden lau xori marrazkiak : urtxoa, kukua, okiloa/kozkotaria eta belea. Marrazkiak diren izarian balia daitezke edo karta itxuran (bakoitza bi aldiz tipituz).

- Urtxoaren, kukuaren, okiloaren/kozkotariaren eta belearen gisa, kantuak edo hotsak egin.
- Xorien irudiak buruz-behera eman. Marrazkia hartu, xoria izendatu eta kantua edo hotsa imitatu.
- Xoriaren kantua edo egiten duen hotsa imitatu eta, marrazki egokia hartu.

## HIZKUNTZA HELBURUAK :

1. *Ukan/Eduki singularrean* : Luma bat badut/badaukat.

*Ukan/Eduki pluralean* : Bost luma baditut/badauzkat.  
Txaloak eman gabe, bertzeek erranaldiak egin ditzakete.  
Adib. Erdian den haurrak : “Bost luma baditut/badauzkat”.  
Bertzeek : “Bost luma baditu/badauzka”.  
Txaloak.

Hemen hizkuntza helburua *ukan/eduki* aditza izan daiteke.

2. *Lexikoa* : Xorien izenak landu.  
*Posesiboa* : Urtxoaren kantua.  
*Joskera* : Urtxoaren kantua entzun dugu.  
*\*edun aditz lag.* : Urtxoaren karta hartu dugu, dut...



**Urtxoak, kukua, okiloa eta belea margo itzazu.**

## Osatzeko entzun :

- *J'écoute les sons de la Nature* KDa. Nashvert Production.
- *Les oiseaux de votre jardin/Our favourite garden birds.* 04708 KDa. Sittelle
- *Chants des 4 saisons. Calendrier sonore de la nature.* 09307 KDa. Sittelle.
- *Xoria kaiolan. Marijane kanta zan!* KDa. Oskorri
- *Tiruriruri xoria kantari. Marijane kanta zan!* KDa. Oskorri.







